

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Gasteizko Hiri Antolamendu Plan Orokorraren S-46 Retana Sektorearen Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren proiektua onestea, eta Plan Partzial horri hasierako onespena ematea**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko apirilaren 13an egindako aparteko eta premiazko bilkuran:

Gasteizko Hiri Antolamendu Plan Orokorraren S-46 Retana Sektorearen Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren proiektua onestea, eta proiektuaren idazleei errekerimendua egitea txosten teknikoek agertzen dituzten akatsak konpon ditzaten, bertan halaxe jasotzen baitute Gasteizko Udal honetako Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak eta Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko Nekazaritza Plangintza eta Kudeaketa Atalak.

46 Retana Sektorearen Hiri Antolamenduko Plan Partzialari hasierako onespena ematea, beti ere dosierak jasotzen dituen txosten teknikoetan ezarritako zehaztasunak betetzen baldin badira, Plan Partzial honi behin betiko onespena eman aurretik.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitza dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Aldakuntza behin betiko onetsi arte eta, edonola ere, urtebetez gehienez, ez da baimenik emango antolakuntza berriaren aurka doazen lur zatikatze eta eraikitze lanetarako.

Dosierra Hirigintza Sailaren bulegoetan egongo da ikusgai (San Prudentzio kalea, 30 - 3. solairua, Gasteiz), adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko apirilaren 16an

*Alkate lehendakaria*

**JAVIER MAROTO ARANZABAL**